



## ARANTZako UDALA

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7  
31790 ARANTZA (Nafarroa)  
© 948 634 005  
udala@arantza.eus  
www.arantza.eus

---

### OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA

---

**Organoa:** Udalbatza

**Deialdia:** Lehenengoa

**Bilera mota:** Arrunta

**Eguna:** 2022.04.28

**Ordua:** 19:00

**Tokia:** Herriko Etxeko areto nagusia

**Bertaratuak:**

- Dabid Iturria Almandoz jn., EH Bildu.
- Beñat Mitxelena Danboriena jn., EH Bildu.
- Joseba Pikabea Iribarren jn., EH Bildu.
- Imanol Lukanbio Larretxea jn., EH Bildu.
- Leire Mitxelena Gamio and., EH Bildu. (3. Puntuan)

**Bertaratu ez direnak:**

- Markel Jorajuria Elizondo jn., EH Bildu.
- Eneko Sarrias Zoco jn., EH Bildu.

**Idazkaria:** Nagore Madariaga Iriarte

### AZTERGAIK:

#### 1. AURREKO AKTAREN ONESPENA

2022/03/24ko akta aho batez onartu da.

#### 2. 2022KO OIHAN ENKANTEAREN PLEGU ONESPENA.

Idazkariak 2022ko oihan enkantea egiteko plegu ekonomiko administratiboa eta plegu teknikoa azaldu ditu. Halaber, nahiz eta enkantean 2022an atera, saldu beharreko oihan aprobetxamendua 2021eko planekoa da.

Soraeta eta Egusutako oihan aprobetxamenduak aterako dira enkantera 1 eta 2 lote bezala, lote bakoitzaren prezioa honako hau izanik:

- 1. LOTEA: 2.298,21 €, BEZa kanpo.
- 2. LOTEA: 18.229,29 €, BEZa kanpo.

Idazkariak azaldu du adierazitako oihan enkante egiteko Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legeko 143 eta 166 artikuluetan xedaturiko prozedura jarraitu beharra dela. Halaber, Nafarroako Toki Araubidea Eguneratzeko urriaren 29ko 11/2004 Foru Legearen Bortzgarren Xedapen Gehigarrian eta Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 88. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, enkantea Nafarroako Kontratazio Atarian eta udaleko iragarki taulan argitaratu daiteke.

Horrela bada, osoko bilkurak, informazioa hartu ondotik, AHO BATEZ ERABAKI DU:

1.- 2022ko oihan enkantearen (Soraeta eta Egusutako parajeak) plegu ekonomiko administratiboari onespena ematea.

2.- 2022ko oihan enkantearen plegu ekonomiko administratiboa eta plegu teknikoa Nafarroako Kontratazio Atarian eta udaletxeko iragarki taulan argitaratzea, 15 egun baliodunez, interesdunek euren eskaintzak aurkez ditzaten.

3.- Arantzako Udaleko alkateari botere nahiko ematea, enkantera proposamenen bat aurkeztuz gero, alkate ebazpen bidez oihan aprobetxamendua egiteko eskaintza hobereana aurkeztu duenari saltzeko.

***\*Leire Mitxelena Gamio bilerara sartzen da.***

### **3. EHIZA BARRUTIA ERATZEAREN ONESPENA.**

Idazkariak azaldu du Arantzako ehiza barrutiaren iraupena 2021/2022 denboraldian bukatzen dela. Horrela bada, ehiza barruti berria eratu beharra da Nafarroako Ehiza eta Arrantzari buruzko abenduaren 22ko 17/2005 Foru Legean eta hura garatzeko eta betearazteko araudia onartzen duen ekainaren 11ko 48/2007 Foru Dekretuan xedaturikoa jarraituz.

Horri dagokionez, idazkariak adierazi du 2022ko martxoaren 24ko osoko bilkuran ehiza barrutia eratzeko espedienteari hasierako onespena eman zitzaiola. Iragarkia Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen 2022ko apirilaren 1ean, 66. zenbakian, barrutian sartu beharreko lurren jabeek aukera izan zezaten lurak barruti horretan sartu nahi ez dituztela berariaz adierazteko. Jendaurreko epea iraganik, hauek izan dira ehiza barrutitik ateratzeko aurkezturiko eskaerak:

<b>JABETZAK BARRUTIAN SARTZEA BAIMENTZEN EZ DUTEN JABEAK ETA JABETZEN KATASTRO-XEHETASUNA</b>				
<b>IZEN ABIZENAK</b>	<b>HERRIA</b>	<b>POLIGONO ZK.</b>	<b>LURZATI ZK.</b>	<b>LURZ. AZALERA (m<sup>2</sup>)</b>
Jose Maria Perez Otaegui	Arantza	4	66	24.568,34
Jose Ramon Ramirez Alvarez	Arantza	4	59	13.311,88
Jose Ramon Ramirez Alvarez	Arantza	4	60	1.896,76

Pascual Oscoz González	Arantza	4	244	3.740,98
Pascual Oscoz González	Arantza	4	245	2.460,00
Pascual Oscoz González	Arantza	4	246	13.713,84
Pascual Oscoz González	Arantza	4	247	7.150,08
Pascual Oscoz González	Arantza	4	156	22.016,44
Pascual Oscoz González	Arantza	4	157	33.830,56
Jose Ramon Amoros Oscoz	Arantza	4	230	22.518,64
Jose Ramon Amoros Oscoz	Arantza	4	231	6.173,63
Pedro Aguinaga Macicior	Arantza	3	12	23.460,83
Pedro Aguinaga Macicior	Arantza	3	13	15.053,51
Pedro Aguinaga Macicior	Arantza	3	128	6.380,49
Maria Gregoria Aguinaga Macicior	Arantza	2	250	18.642,64
<b>GUZTIRA</b>				<b>214.918,62</b>

Horrela bada, **Udalbatzak**, aldeztatik eztabaidatu ondoren, honako hau **ERABAKI DU** **LEGEZKO GEHIENEZ**:

- 1.- Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazio Sailari tokiko ehiza barruti bat eratzeko eskatzea. Barruti horretan honako lur hauek sarturik: **ARANTZA**
- 2.- Lurren lagapena isilbidez lortu dela zehaztea, ehiza-barrutia eratzeko proiektuaren iragarkia Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta tokiko erakundearen ohiko publizitate bideetan argitaratuta.
- 3.- Ehiza barruti horren iraupena 10 ehiza-denboraldikoa izatea; azkena, 2031/2032 denboraldia.
- 4.- Usua Tokiko Ehiztarien Elkarteari (IFK: G31397128) adjudikazio bidez egindako aprobetxamendu bakarra esleitzeko prozedura ezartzea.
- 5.- Ehiza-barrutiaren ehiza-aprobetxamendua esleitzeko baldintzak onartzea. Baldintza horiek erantsitako dokumentuan jasotzen dira.
- 6.- Akordio hau Nafarroako Gobernu Naturako Ingurumeneko Zerbitzuari jakinaraztea.

#### **4. 2022KO PLANTILLA ORGANIKOAREN ALDAKETA. HASIERAKO ONESPENA.**

Idazkariak azaldu du enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premia- neurri buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legeak aurreikusten duela aldi baterako enplegua egonkortzeko prozesu batzuk egin behar direla administrazio publiko guztietan eta, ondorioz, baita Arantzako Udala ere.

Horri dagokionez, idazkariak adierazi du, udaleko plantilla organikoa ikusirik, ez dagoela jasota garbitzaile lanpostua. Hala ere, udalean aldi baterako lan kontratuarekin garbitzaileak egon dira

kontrataturik jarraian 2016ko urtarrilaren 1a baina lehenagotik, kontratutik kontratura 3 hilabete baina gutxiagoko etenaldiak izanik. Horrela adierazten du idazkariak plantilla organikoaren aldaketa gauzatu ahal izateko egindako txosten juridikoan.

Hori dela eta, aipaturiko legearen 2. artikuluan xedaturikoa ikusirik, aldi baterako enplegua egonkortzeko prozesuak kontuan hartu behar ditu egitura izaerako plazak, lanpostu zerrenden, plantillen edo bertzelako antolamendu moduaren baten barruan egon edo ez, aurrekontu zuzkidurak badituzte eta gutxienez 2020ko abenduaren 31 baino lehenagoko hiru urteetan modu tenporal jarraian beteta egon badira. Halaber, lege beraren Seigarren Xedapen Gehigarriak adierazten du, salbuespen gisa, merezimendu lehiaketa izanen dela 2016ko urtarrilaren 1a baino lehen etengabe beteta egon diren egiturazko lanpostuak betetzeko sistema.

Idazkariak adierazi du, abenduaren 28ko 20/2021 Legean xedaturikoa ikusirik eta Nafarroako Gobernuko Toki Administrazioiko Departamentuarekin kontsulta egin ondotik, udala behartuta dagoela garbitzailearen lanpostua plantilla organikoan sartzeko oraingo baldintza berdinetan eta dagokion moduan egonkortzera.

Hau horrela izanik, idazkariak gomendatzen du garbitzailearen lanpostua plantilla organikoan sartzea orain arte egon den baldintza berean, merezimendu lehiaketa bidez, hori guztia abenduaren 28ko 20/2021 Legean xedaturikoa betez. Proposatutako aldaketa plantilla organikoa aldatuz egin beharko litzateke, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 235 eta 271 artikuluetan xedaturikoa jarraituz.

Osoko bilkurak, informazioa adituta, AHO BATEZ ERABAKI DU:

1.- Arantzako Udaleko plantilla organikoan E mailako garbitzaile lanpostua sortzea, ondorengo baldintzetan:

LANPOSTUAREN IZENA	ARAUBIDE JURIDIKOA	LANALDIA (%)	MAILA	SARBIDEA	OSAGARRIAK		LANEKO EGOERA	EUSKARA MAILA
Garbitzailea	Funtzionarioa	100,00	E	oposizio-lehiaketa	%19,85 L.O.	%15 M.O.	Hutsik	B2 (A) A2 (I)

2.- Salbuespen gisa, abenduaren 28ko 20/2021 Legean xedaturikoa ikusirik, oraingo honetan garbitzaile lanpostua merezimendu lehiaketa bidez betetzea, dagokion eskaintza publikoa argitaratu eta deialdia egin ostean.

3.- Honako akordio hau Arantzako Udalaren iragarki taulan argitaratzea, alegazioak edo erreklamazioak aurkezteko 15 egun balioduneko epean.

4.- Jendaurreko epean alegazio edo erreklamaziorik aurkeztu ezean, behin betiko egitea aipaturiko plantilla organiko aldaketaren testua.

## **5. PELLE TTIKI HAUR ESKOLAREN ZERBITZU KONTRATU LUZAPEN ONSPENA.**

Idazkariak azaldu du Pelle Tttiki haur eskolako zerbitzu kontratua 2022ko ikasturte amaieran bukatuko dela. Hau horrela izanik, kontratuaren bigarren klausulan urtetik urtera berariaz luzatzen ahal dela xedatzen duela jakitera eman du, gehienez ere bortz urtera arte. Hori guztia Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 45. artikuluan xedatutakoari jarraituz.

Osoko bilkurak horren inguruan eztabaidatzen du. Pelle Ttiki haur eskolako aurrematrikula epea maiatzaren 6an bukatzen dela ikusirik, gutxienez 4 hurrek izena eman badute, kontratua aurreko baldintza berean bertze urte batez luzagarria litekela deritzote, 2022-2023 ikasturterako.

Osoko bilkurak, informazioa adituta, AHO BATEZ ERABAKI DU:

- 1.- Aurrematrikula epea bukatzean gutxienez 4 hurrek izena eman badute kontratua aurreko baldintza berean bertze urte batez luzatzea, 2022-2023 ikasturterako.
- 2.- Alkateari botere nahiko ematea kontratu luzapena sinatzeko.
- 3.- Akordio hau Magalako Ttikiak, S.L. enpresari jakinaraztea, dagozkion ondorioak izan ditzan.

## **6. ALKATEAREN EBAZPENAK.**

25/2022 eta 35/2022 arteko ebazpenak berretsi egiten dira.

## **7. ESKAERAK ETA GALDERAK.**

Ez dira egiten.

## **8. ADINEKOEI BANKUEN ZERBITZU PERTSONALA ERRAZTEKO MOZIOA.**

Alkateak, Julen Mitxelorenak, Baztan-Bidasoako pentsionisten izenean, aurkezturiko mozioaren berri ematen du.

Idazkariak, hurrengo osoko bilkura maiatzaren bukaeran izanen dela jakinda eta mozioa ahalik eta lasterren onestearen premia ikusirik, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeko 81.2. artikuluan xedaturikoaren arabera, honako puntu hau osoko bilkuran honetan eztabaidatu daitekeela dio.

Osoko bilkurak, informazioa adituta, AHO BATEZ ERABAKI DU:

1.- Arantzako herrian dauden banketxe guztiei eskatzea leihatila bat irekitzeko herrian kokaturik dauden bulego guztietan. Horrela, herritar guztiei, lehentasuna 65 urtetik gorakoei emanez, lanaldi osoan bertan aurrez aurreko zerbitzua bermatuz.

2.- Arantzako herrian dauden banketxe guztiei eskatzea lokaletara sartzeko murrizketan dauden bitartea eta/edo pertsonen arteko segurtasun distantzia gorde behar den bitartean, neurri horiek eta beharrezkoa den bertzeko edozein betetze altera, entitatearen sukurtsal bakoitzean, egingarria den elean, ahalik eta edukiera handienetako itxarongela bat gaitzea edo, bertzeko bertzeko neurri batzuk hartzea bezeroei eragozpenak saihesteko.

3.- Arantzako herrian dauden bankuei eskatzea azaroaren 24ko 19/2017 Errege Dekretuan, otsailaren 28ko ECE/228/2019 Aginduan eta martxoaren 22ko 164/2019 Errege Dekretuan (oinarrizko ordainketa kontuak arautzen dituen) xedatutakoa bete dezatela; 1. Mailan hileroko komisioa ordainduta eta doakotasuneko 2. Mailan, urrakortasun-egoera kolektibora edo doakotasuneko egoera sinplera bideratuz.

4.- Arantzako herrian dauden banketxei eskatzea 65 urtetik gorako pertsonen doan eman diezazkietela zordunketa txartelak, inolako komisio, kontrapartida erabilera muga, gutxieneko saldo, gutxieneko erabilera zenbateko, bertzeko banku produktu batzuk edo antzeko eskakizunik gabe.

5.- Kontuan hartutako ohiko jardueran bankuek funtzio probatuak betetzen dituztela bezeroekin bat etorritik, hala nola, Pentsio Plan bat, Inbertsio Funts bat sinatzea, akzio pakete bat edukitzea eta kudeatzea, kutxa indartsu bat alokatzea etab. bezeroak ez du jarduera hori egin behar. Baina, aldi berean, izaera publikoko eginkizun batzuk betetzen ditu eta bezeroak ez du eginkizun horietan itunik egiten, aitzitik, ezinbertzean onartu behar du bankuaren bitartekaritza, bertzeko aukerarik gabe: gordailugile, bere dirua kentzea eta ezinbertzeko hornidurak ordaintzea, bertzeko bertzeko: gasa, elektrizitatea, zergen ordainketa eta tasak.

Horrela bada, Espainiako Bankuari eskatzea argi eta garbi bereiz ditzala bankuek bete behar dituzten funtzio pribatuak eta publikoak. Halaber, bankuen doakotasuna ezar dezala edo, halakorik egin ezean gutxieneko komisio bat.

6.- Ekonomia Gaietako eta Eraldaketa Digitaleko Ministerioari (Ekonomiako eta Enpresari Laguntzeko Estatu Idazkaritza) eta Espainiako Bankuari BANKA PUBLIKOA eratzeko eskatzea, dagoen banku pribatuarekin bateragarria dena, bankuari dagozkion funtzio publikoak betetzeko eta pertsona fisikoentzako sarbidea izanik, honako oinarri hauen arabera jokatzeko:

*“Bertako saldo handiena duenari gehiago kobratzea eta ordainagiriaren, gainerako ordainbideen kobratzearen eta bertzeko prestazioen kudeaketaren kostua ordaintzea, batez ere, zerbitzu horretaz baliaitzen diren pertsona fisiko edo juridikoei.”*

7.- Arantzako herrian dauden banketxe guztiei eta 5 eta 6 puntuetan adierazitako erakundeei akordio hau jakinaraztea.

Bertze aztergairik izan gabe, 21:00 direnean, alkateak bilera bukatutzat eman du, eta nik, idazkaria naizenez, ziurtatzen dut.


**ALKATEA,**



Dabid Iturria Almandoz



**IDAZKARIA,**



Nagore Madariaga Iriarte

